



**MUSIKAREN ETA
DANTZAREN HISTORIA**

**HISTORIA DE LA MÚSICA
Y LA DANZA**

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

Probak 90 minutu iraungo du. HIRU atal ditu.

1. atalean, bideo bat erreproduzituko da. Ez dago aukerarik.
2. atalean, bi aukera daude, A eta B. Bi aukeren artean, bat bakarrik egin beharko duzu, zuzentzeko orduan bat bakarrik hartuko baita kontuan. 250 eta 400 hitz arteko gutxi gorabeherako luzera izan behar du.
3. atalean ere bi aukera daude, A eta B. Multzo bateko sei terminoetatik lau bakarrik garatu beharko dituzu. Zuzentzeko orduan, lau baino ez dira kontuan hartuko. Bakoitzak 50 hitzeko gutxi gorabeherako luzera izan beharko du.

Argibideetan adierazi baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte. Besteak ez dira kontuan hartuko.

ATAL GUZTIETAN, alderdi hauek balioetsiko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokia, zuzentasun ortografikoa, gaiaren oinarriei buruzko ezagutzak eta ideien antolamendua.

Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jartzea

ATALAK:

1. **Bideo-iruzkina** (5 puntu). Bideo bati buruzko iruzkina: Musika- edo dantza-emanaldi batera joan zara zure ikaskideekin. Zure ikastetxeko aldizkaritik eskatu dizute kronika bat idazteko, ikusi eta entzun duzuna joan ez zirenei kontatzeko. Horretarako, gidoi bat eta emanaldiaren bideo bat eman dizkizute. Horien laguntzaz kronika bat garatu beharko duzu zure ideia propioak sartuz:

Christoph Willibald Gluck: "J'ai perdu mon Eurydice", *Orfeo eta Euridizekoa* (1774)

Interpretazioa: 2015

Produkzioa: Royal Opera House:

Orfeo: Juan Diego Flórez



MUSIKAREN ETA DANTZAREN HISTORIA

HISTORIA DE LA MÚSICA Y LA DANZA

Zuzentzeko irizpideak:

- Elementu tekniko nagusiak (1,5 puntu): generoa (nork jo, abestu edo dantzatzen du: taldeak, bakarlariak...), sistema (modala, tonala, atonala...), ehundura (monofonia, homorritmia, kontrapuntoa...), erritmoa (neurtua, askea, ez-zehatza), dantzatzeko era (antolakuntza, arautua ala ez, koreografikoa, pauso batzuen agerpena...). Beste ezaugarri batzuk.
- Elementu estetikoak (1 puntu): obraren asmoa (sentimenduen adierazpena, esperimentazioa, erlijiositatea, gorputzaren kontrola...)
- Kokapen kronologikoa, estilistiko eta formala (1,5 puntu): Lotura garaiarekin edota egilearekin, testuinguruaren garrantzia, erlazioa lehenagoko eta geroagoko korrante, garai edo egileekin...
- Iritzi kritikoa; ideia propioak, informatuak eta oinarrituak transmititzea. (1 puntu)

2. Gaia (3 puntu)

Proposatuko gaietako baten garapen sintetikoa, ideiak horretarako aurkezturiko gidoira egokituz.

A. Errenazimentuko musika eta dantza

- Sarrera (0,75 puntu): kronologia, aurreko eta geroko mugimenduak edo garaiak, kokapen geohistorikoa.
 - Garaiko gizartearen ezaugarriak eta haren erlazioa musika eta dantzarekin. (0,75 puntu)
 - Ezaugarri tekniko eta estetikoak (1 puntu)
 - Ondorioak (0,5 puntu): garai edo mugimendu honetako elementu nagusiak
- Testuaren antolaketa eta proposaturiko gidoira egokitzea baloratuko dira, puntuazio maximoa (3 puntu) inolaz ere gainditu gabe.

B. Tradiziozko euskal musika eta dantza Euskal Herrian

- Euskal Herriko gizartearen ezaugarriak eta haren erlazioa musika eta dantzarekin (0,75 p.)
 - Tradiziozko euskal musika eta dantza nagusiak (1 puntu)
 - Azken hamarkadetako aldaketak euskal gizartean, eta beren interaktuazioa tradiziozko musika eta dantzarekin (0,75 puntu)
 - Ondorioak (0,5 puntu): arlo honetako elementu nagusiak.
- Testuaren antolaketa eta proposaturiko gidoira egokitzea baloratuko dira, puntuazio maximoa (3 puntu) inolaz ere gainditu gabe.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO
PROBA

2025eko OHIKOA

PRUEBA DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2025

MUSIKAREN ETA DANTZAREN HISTORIA

HISTORIA DE LA MÚSICA Y LA DANZA

3. Azalpen laburrak (2 puntu) (0,5 puntu/termino)

Termino multzo hauetako bat hautatu eta, ondoren, aukera horretako sei terminoetatik lau bakarrik azaldu beharko dituzu.

Sintesi-ahalmena, zuzentasuna eta musika- eta dantza-hiztegi teknikoaren erabilera baloratuko dira.

A multzoa

- areto-dantzak
- bluesa
- comboa
- dantza baxua / dantza altua
- idiofonoa
- leitmotiva

B multzoa

- Martha Graham
- neoklasizismoa
- riff
- pas de basque
- tinbrea (soinu-ezaugarria)
- zarzuela